



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2025eko ekainaren 3a


<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Beñat Sarasola

(Donostia, 1984)

Beñat Sarasola idazlea, literaturako kritikaria eta irakaslea da. Euskal Herriko Unibertsitatean filosofian lizentziatu ondoren, Bartzelonako Unibertsitatean Literatur Teoria eta Literatura Konparatuan lizentziatu, eta unibertsitate berean doktoratu zen 2014an. Bere tesiak Doktoradutza Sari Berezia eskuratu zuen, eta egun, irakasle da EHUUn. Susa argitaletxearen Munduko Poesia Kaierak bildumako editorea ere bada, eta lau urtez ETBko Sautrelan lan egin zuen gidoilari eta zuzendari gisa. Hainbat komunikabidetan (Berria, Argia) kolaboratu izan du urteotan.

Coca-cola bat zurekin



Frank O'Hara poetak zuzendutako lehen erakusketaren pase berezia New Yorken. 1960ko uda. Espainiako pintura eta eskultura berriaren lagin on bat biltzea da ideia, eta hautagaien artean daude nazioartean sona hartzen ari diren Oteiza eta Chillida izeneko artista bi ere. Artea erregimen frankista zurrizko baliatu ez dadin adi daude, aldiz, beste zenbait. Eta, bitartean, O'Harak, lanak lan, Vincent Warren dantzari eta maitalearengan du jarrita bere gogo biziena.

New York, Madril, Irun, Montevideo, Donostia, Miarritze. John Ashbery, Grace Hartigan, Luis Gonzalez Robles, Antoni Tapies, Diane di Prima, Ramos ahizpak. Iragan mendearen erdialdea igaro berritan, AEBetako eta Europako kultur mundua astindu zuten dozenaka izen sartu-irtenean dabilta kontakizun honetan, argiaren —hala itsasertzeko egun batena, nola etxe-orratzen bitarteetako—, minduraren eta begirada ironiko bezain alai baten artetik. O'Hararen poemetan gertatzen den bezalatsu, hain justu. Haietako bati zor dio

izena Beñat Sarasolaren bigarren nobelak.

Beñat Sarasolaren idazlanak

Poesia

Kaxa huts bat (2007)

Alea (2009)

Eleberria

Deklaratzekorik ez (2024) **N SAR**

Coca-Cola bat zurekin (2024) **N SAR**

Beñat Sarasola: «Fikzioaren bitartez, askoz ere modu sakonagoan eta sentsorialagoan murgil daiteke irakurlea garai zehatz batean»

“...

Erraza egin al zaizu pertsonaia errealekin fikzioa egitea?

Nobela bat idazten duzunean, sinesgarritasuna nola eman izaten da gakoa. Kasu honetan, batez ere, O’Haran oinarritzen da istorioa. Oteizak eta Chillidak, esaterako, beraien ahotik ez dute gehiegi kontatzen. O’Hararen kasuan, ordea, narratzailea nolabait bere buruan sartzen da eta bere begietatik ikusten ditugu pasarte asko.

Eta nola lortu duzu benetakoa den pertsonaia hori horrelako xehetasunez irudikatzea?

Urte asko daramatzat haren poesia, gutunak eta berari buruzko lanak irakurtzen. Egindako lan horren ondorioz, ia-ia bere buruan sartu nintzen, edo nik hori imajinatu nuen behintzat. Eta, azkenean, bere munduan sartuta zaudenean ez zaizu hain zaila egiten hortik begiratzea. Horretarako, bere poesia oso lagungarri egin zait, bere esperientzietan oso oinarrituta baitago. Etengabe agertzen dira bere lagunak, bere ingurua eta egunerokoan egiten duena. O’Hararen pertsonaiarekin jolasteko abantaila bat nuen, gainera, euskal irakurleen gehiengoak ez duela gehiegi ezagutzen. Oteizarekin edo Chillidarekin zailagoa da hori egitea, ezagunak direlako.

Zergatik Frank O’Hara eta bere bizitzan oinarritutako eleberria?

20 urte nituelarik poesia idazten hasi nintzen, eta orduan izan nuen O’Hararen lanaren berri. Bere poesia interesatzen hasi zitzaidan. Esaterako, nire lehenengo poema liburuan badago poema bat bere idazteko moduan nabarmen inspiratua. Eta bigarren poema liburuan ere bada beste bat. Baina orduan ez zitzaidan bururatu berari buruz liburua idaztea. Gerora topatu dudana bere poema batetik sortu zen ideia. Donostia, Irun edota Hendaia aipatzen ditu poema horrek, eta hain zuzen liburua izenburua ere bertatik hartua da. Poema irakurri nuenean harrিতa geratu nintzen eta aztertzen hasi nintzen Euskal Herriaren aipamenaren zergatia. Bada, New Yorken egin zuten erakusketarena jakin nuenean, saiakera bat egitea izan zen nire hasierako ideia, baina gero askoz ere interesgarriagoa egin zitzaidan fikziora eramatea.

...

Bitxia da pertsonaia berezi horrek eleberrian frankismoko zenbait elementurekin izan zuen harremana ikustea.

Bai. Oso interesgarria egiten zitzaidan horrelako pertsona aurreratu bat lan kontuengatik frankismoko funtzionario ‘kasposo’-ekin tratuetan aritzea. Kontraste hori nahiko nabarmena da eta

errealitatean horrela gertatu zen. Erakusketa hura MOMAk antolatu zuen (Museum of Modern Art) eta frankismoko pertsonaiak saiatu ziren etengabe eskua sartzen gauza guztietan, hala nola artisten eta obren aukeraketan edo argitaratuko ziren testuetan. Oso kezkatuta zeuden Espainiako egoerari buruz esango zutenaz. Azken batean, MOMAri garai hartan boladan zeuden Espainiako artisten lana erakustea interesatzen zitzaion eta frankismoari, berriz, bere itxura 'moderno' mundura zabaltzea. Interesen bateratze horretan, bien arteko desberdintasunak eta tentsioa nabari dira. O'Harak berak esaten zuen ez zituela gertuko sentitzen espainiarrak.

Arteari begiratuta, nolako garaia zen?

Garai hartan Estatu Batuetan espresionismo abstraktua zegoen gorenean, Jackson Pollock edota Willem de Kooning bezalako artisten mugimenduarekin. Eta, O'Hara hor barruan zegoen. Espainian, neurri batean, horrekin gertu samar sentitzen zen beste arte mota bat zegoen, informalismoa deiturikoa. Mugimendu horretan kokatzen dira Antoni Tapies edota Chillida bera. Estatu Batuetan boladan zegoen artearengandik gertu zegoelako-edo, Espainiako arte berri hura ere ondo kokatu zen mundu mailan.

Ordurako Chillidak eta Oteizak eginda zuten euren ibilbidea.

Bai. Oteizak ordurako eskultura utzia zuen. 1957an Sao Pauloko Bienalean sari nagusia irabazi eta gutxira eskultura egiteari utzi zion eta arkitekturarekin loturikoetan murgildu zen gehiago. Chillidak 58an irabazi zuen Veneziako Bienala eta ordutik aurrera oso ezagun egin zen mundu mailan. Hain justu horregatik, ordurako izen bat bazutelako, eta beste hainbat arrazoiengatik, ez zuten interes berezirik New Yorkeko MOMAko erakusketarekin.

Nola izan zen New Yorkeko erakusketaren antolaketa?

O'Harak aukeratu zituen bai artistak bai eta lanak ere. Gonzalez Robles espainiar komisarioak etengabe egiten zion presioa, baina azken erabakia O'Hararena zen. Garai hartan gatazka egon zen hainbat artista espainiarrekin, Tapies edota Saura, kasu, frankistek antolatutako erakusketetan ez zutela parte hartuko hasi baitziren esaten. Euren artea frankismoa mundu mailan zurrizko erabiltzen zutela sentitzen zuten. Tentsio horren erdian kokatzen da New Yorkeko erakusketa. Tapiesen kasuan, esaterako, erakusketan erakutsi ziren bere obrak bilduma pribatu batekoak ziren. Oteizarenak ere beste galeria batetik eramane zituzten eta bera ez zen ohartu ere egin, eta ondoren haserretu egin zen. Chillidaren obra asko ere bilduma partikularretakoak ziren.

...

Hainbat idazkera mota tartekatu dituzu, eta horrek nolabait erraztu eta arindu egiten du irakurketa.

Zalantzak izan nituen nola kontatu istorioa. Franken eta Vincenten arteko harremanak pisua izan behar zuela iruditzen zitzaidan. Garai hartan, justu, bere poesia onenak eta ezagunenak Vincenti eskainiak dira. Oso maitasun istorio ederra, laburra eta sutua izan zen, eta hori kontatzea interesgarria iruditzen zitzaidan. Harreman honen pasarteekin museoko kontuak, askotariko dokumentuak eta abar nahasten dira. Hori guztia nola kokatu asmatzea muntatze moduko bat izan da.

Hasieratik horrela irudikatu al zenuen kontaketa?

Nahiko hasieratik erabaki nuen saltoka kontatzea. Horrek aukera ematen zidan bestelako dokumentuak txertatzerakoan logika kronologiko bat jarraitu behar ez izatea. Alde horretatik, suspensea gehiago dago istorioa kontatzeko moduan, zein hurrenkeran, eta ez hainbeste edukian. Irakurlea istorioa osatzen joaten da, pixkana pieza desberdinak kokatuz.

...”

Iñigo Terradillos / 111 Akademia, 2024-12-31

Kritikak esandakoak

“Frank O’Hara poeta amerikarrak bere poema-sorta ezagunenetako baten ildotik, zenbait euskal hiribururi (Donostia, Irun, Hendaia, Biarritz, Baiona) bertso-lerro batzuk eskaini zizkien. Hari horretatik tiraka, eta euskal aipamenaren zergatiak jakin nahian, Beñat Sarasolak ikerlana ondu du eta hartara jakin du New Yorken zuzendutako lehen erakusketaren pase berezian Espainiar artistak komisariatu zituela, haien artean Oteiza eta Chillida. Haiekin harreman zuzena izan zuen, baita garaiko beste artista batzuekin ere, Espainiara egindako bidaia baten kariaz. Lortutako informazioa eleberri batean bildu du Sarasolak. Hala dio berak liburuaren epilogoan.

Gauzak horrela, testuak saiakera kutsua du. Zentzu horretan, testua nahiko irregularra da: zati batzuetan egilea Sarasolaren alter ego lanak egiten dituen kazetari batez mozorrotzen da, bere ikerketaren ondorioak euskal irakurleari aurkezteko; eta zati batzuetan egileak bere irudimena hegan egiten uzten du, datu historiko objektiboan artean aurkitzen dituen hutsuneak fikzioz betetzeko.

Lehen zati horiek dira ziurrenik aiseen irakurtzen direnak. Baina fikziozko zati horietan idazleak gertakariak ia-ia etenda geratzea lortzen du, kontakizuna patxadaz luzatuz; bizitzaren ospakizuna konposatuz. Horiek dira nik gehien gozatu ditudan pasarteak. Gainera, testua kontatzeko erabilitako denbora-jauziek, dokumentazio-lana irakurtzen aritzearen sentsazioa gutxitzeaz gain, funtzionatzen dute tramaren tentsioa mantentzeko.

Bere izaera testual bereziagatik eta planteatzen duen gertakariaren interesagatik, euskal irakurleen artean hizpide izango den liburua dugu hau; seguru...”

Aiora Sampedro / El Diario Vasco, 2024-12-28

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Be%C3%B1at_Sarasola

Literaturaren zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=766>

Booktegi

<https://www.booktegi.eus/egileak/sarasola-benat/>

Susa literatura

<https://susa-literatura.eus/liburuak/narr152>

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9125>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9076>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9061>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9025>